



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Fitxa teknikoa

Sinopsia

Zinema eta Telebistaren
erreferentziak pelikulan

Ikuskizunaren gizartea

Giza eskubideen
historiaren gogoeta

Proposamen didaktiko
hau lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarrizketarako gida

Zer da errege izatea?
Zer da demokrazia?

Giza Eskubideak

Hollywood, Bollywood,
Lollywood



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean

Pelikularen gaia

Pertsonaien deskribapena

Elkarrizketa sustatzeko
proposamenak:

- Asto ameslaria eta *American Dream*
- Demokraziaren aldarrikapena
- Erregetzaren oinordetza
- Komunikabideak: gezur eta ikuskizun
- Zirkua
- Ustelkeria
- Errealitatea eta itxura
- Bukaeraren sinesgarritasunaz
pentsatzen

ARIKETA: Komikiak



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Asto erregea

Herrialdea: Pakistan

Zuzendaria: Aziz Jindani

Gidoia: Aziz Jindani, Kamran Khimani

Urtea: 2018

Iraupena: 85 min.

Musika: Shani Arshad, Shuja Haider,
Majid Raza, Syed Asrar Sha

SINOPSIA

Fabula bat aurkezten da, non Lehoi Erregea, oihaneko burua, erretiroa hartzekotan dagoen. Bere oinordetzan semea utzi nahi du baina herriak ez du errez onartuko semea errege izatea; sinesgarritasun eta lidergorik ez duen alferra delako. Hortaz, erregea, Miss Fina aholkulariarekin batera hauteskundeak deitzea erabakitzen dute.

Mangu, garbitzaile ofizioa duen maila sozial baxuko astoa, ustekabeen herritarren hautagai bihurtuko da, eta Hantusteusi, Lehoi Erregearen legezko oinordekoari, aurre egin beharko dio.

Mangu baina, ez daki bere hautagaitza Miss Finaren plan maltzuraren parte dela. Honen asmoa, Lehoi Erregea tronutik kentzea da, eta haren semea ondorengotzatik kanpo uztea. Hartara, tronua kontrolatzeko aukera izango du, bere agindupean dagoen hautagai baten bidez.

Azkenik, heldu dira hautetsontziak oihanera! Lortuko ote du Mangu emandako hitza betez errege izatea? Ala, Miss Finaren txotxongilo hutsa izango ote da?





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

**ZINEMA ETA TELEBISTAREN
ERREFERENTZIAK PELIKULAN**

Pakistango historian, orain arte, arrakasta gehien izan duen marrazki bizidunetako pelikula izan da; Disney-ren “Errege Lehoia” superprokzioak lortutakoa gaindituz.

“Asto erregeak” ikuskizunaren gizartean oinarrituta dagoen lengoia erabiltzen du eta bere baitan, telebista programa eta pelikula ezberdin anitzei erreferentzia egiten dio:

Miloidun izan nahi duzu?

Telebista programa:

Euskadin Carlos Sobera aurkezleak gidatu zuen programa izan zen. Bere jatorria 1998an Erresuma Batuak *Cash Montain* (Diru mendian) telebista programan kokatzen da. Gerora, 100 herrialdetako telebistetara zabaldutako frankizia handi batean bihurtuz.

Slumdog Millionaire filma:

2008ko Danny Boyleren pelikulak *Cash Montain* edota “Nork izan nahi du milioi-dun” telebista programa dauka abiapuntu. “Asto erregea” pelikulan telebista programa eta pelikulari erreferentzia ezberdinak egiten zaizkio.

**The King Lion
(Errege Lehoia):**

Walt Disney-ren 1994ko filma. Oihaneko lehoi erregearen erreferentzia eta abiapuntua hartuta, asto erregearen pertsonaia sortzen da. Lehoi erregearen pelikulan, lehoia heroia bada; asto erregearen pelikulan asto antiheroia da.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

“Talentua daukazu”

telebista programa:

Jatorrizko programa, Simon Cowell-en “*Britain’s Got Talent*” da, gero herrialde askotara saldu izan dena. “Talent Show” frankizia hau, “Asto erregea” pelikulan hauteskundetan erabiltzen da; hautagai politikoak aukeratzea ikuskizun batean bihurtzen da. Hautagaien artean *Donald Trump* agertzen da.


“Titanik” filma:

1997an James Cameronek egindako pelikulari aipua egiten zaio. Mangu astoak, Titanik pelikulan agertzen den eszena ezagun batean bere burua irudikatzen du.



Gladiator filma:

2000an Ridley Scottek egindako filmari aipua egiten zaio “Asto erregean”, Oihaneko festibaleko eszenan.



“Abereen etxaldea” liburua eta pelikulak:

1945ean George Orwell britaniarrak idatzitako eleberri laburra pelikula ezberdinetan gorpuztu da. Hauetako batzuk, haurrentzako marrazki bizidunetako filmetan egin izan dira. Politika totalitaristaren satira bat da eta pertsonaiak animaliak dira. “Asto erregea” pelikulan, protesta eta martxa ezberdinak burutzen dituzte animaliek.

Lollywood abesti eta koreografiak:

Asto erregea” filmak, Pakistango Lahore hirian dagoen zinema industriak sortzen dituen pelikulei aipua egiten die eta Pakistango musika eta koreografia garaikideen lengoia erabiltzen du.

Joker, Batman komiki eta pelikuletako pertsonaia maltzurra:

“The Bat-man” 1939an, Bob Kane eta Bill Finger-ek sortutako komikia da. 1989an Tim Burtonek izen bera duen lehenengo pelikula egin zuen. “Asto erregea” pelikulako gizaki bakarra, Joker-en maskarekin agertzen den ziurkuko domadorea da: “Ikuskiznaren maixua” izenekoa. Honek, Joker-en aurpegia imitatzen duen maskara darama eta izaera maltzur berekoa da.





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

IKUSKIZUNAREN GIZARTEA

Ikuskizunean oinarritutako gizartean bizi garela zioen Guy Debord idazle, zinemagile eta filosofo frantsesak. 1967an "Ikuskizunaren gizartea" liburu laburra idatzi zuen eta pelikula egin zuen. Debordek dio, Mass-media edota komunikabide sare handiek sortzen duten irudien bidez harremantzen garela eta geroz eta gutxiago, gure errealtatearen esperientzia oinarrituz. Irudi-kontsumitzaileak bihurtu gara eta errealtate prefabrikatu batek inguratzen gaitu. Etengabeko "ikuskizun" modu ezberdinetan murgilduta gabiltza; gu geu ikuskizun bilakatzeraino arriskuarekin. Hortaz, errepresentazio (faltsu) hauek guztiak, errealtatearen kutsua hartzen joan dira, errealtatea bera ordezkatu arte.

Gaur egungo teknologia informatikoaren garapenak eta honek gure bizitzetan sarrarazi duen alderdi birtualak.



"Asto erregea" pelikulan, ikuskizunaren gizartea modu ezberdin askotara aurkezten da:

- **Zirkua bidez:** Zirkuan eserita dauden ikusle pasiboak aurkezten zaiena ikusten dute. Zertan parte hartzen dute? Kritikoak dira?
- **Komunikabideek edozer gauza egin dezakete ikusle kopurua mantentzeko:** Irudien manipulazioaren bidez. Irudien errepresentazio faltsuak, errealtateak balira bezala aurkezten dituzte.
- **Berri faltsuak sortu (fake-news-ak):** esaten denagatik edo isilean gordetzen diren errealtateengatik. Pelikulan; herritarrek bahuak eta desagertuak izan direla zurrumurruak edo esamesak direla adierazi.
- **Bizitza ikuskizun batean bihurtzea:** giza prozesuei, telebista programa bateko kutsua ematea, filmean adibidez: hautagai politikoaren aukeraketa telebistako mass-media lehiaketa batean bihurtzea.
- **Internet eta sare sozialak:** birtuala eta erreala zer den bereiztea kostatzen denean. Pelikulan: astoak herritarrei, bahuak nor den esaten dienean ez diote sinisten; baina facebook-era bideo bat igotzen duenean ordea bai.



GIZA ESKUBIDEEN HISTORIAREN GOGOETA

"Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute."
(Giza Eskubideen Deklarazio unibertsalaren hasiera, 1948).

Bigarren Mundu Gerraren ondorio lazgarriek Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sortzeko espiritu politikoak prestatu zituen eta bere beharra agerian utzi zuen. Baina, giza eskubideak gizakia bera bezain zaharrak dira eta gizakia izateagatik ditu eskubide horiek...



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO
HAU LANTZEKO AHOLKU
METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektual eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutzak, sinesmenak, aurreiritziak eta bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrek konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pauso horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz eta horixe izango da proposamen honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitio ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko.

Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailerak sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

HIPOTESIAK FORMULATU:

Zer azalpen izan dezake...?

Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

ARRAZOIAK ESKATU:

Ze arrazoi duzu hori esateko/pentsatzeko?

Zergatik uste duzu...?

IKERTU:

Nola jakin dezakegu...?

INTERPRETATU:

Nola ikusten duzu zuk gertaera hori?

Norbaitek ba al du ikuspuntu ezberdin bat?

KAUSAK ETA ONDORIOAK

ERLAZIONATU:

Zein izan daiteke horren kausa?

Zentzuk dira (gertaera horren edo esandakoaren) ondorioak?

ANTZEKOTASUAK ETA
EZBERDINTASUNAK BILATU:

Zer dute amankomunean ...?

Zerk egiten ditu ezberdin?

LABURTU:

Hitz gutxitan azal dezakezu...?

HITZEZKOA EZ DEN
HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI:

Zer adierazi nahi du keinu horrek?





**PELIKULA
IKUSTERA JOAN
AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**



FILMAREN AZALA ETA IZENBURUTIK ABIATUTA ELKARRIZKETARAKO GIDA

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldira joan aurretik, ikusiko dugun pelikularen azala eta izenburuari arreta jartzen badiogu; Zer deskubritu dezakegu filmari buruz?

- Zer iradokitze dute irudiek? Zerbait ondoriozta daiteke?
- Zer iradokitze du izenburuak?
- Izenburu honek beste pelikularen bat ekartzen al dizu gogora?
- Jakin daiteke pelikula hau zein herrialdetan sortu den?

ZER DA ERREGE IZATEA? ZER DA DEMOKRAZIA?

- Demokrazian, hauteskundeak daude? Zertarako balio dute?
- Herritarrek beraien erregea aukeratzen dute?
- Zer botere mota du errege batek?
- Herritarrek beraien presidentea aukeratzen dute? Nola aukeratzen dute?
- Nola sortzen dira legeak?
- Legeak, Giza eskubideekin lotuta daude?




GIZA ESKUBIDEAK

Asto *Erregea* pelikula ikusi aurretik, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean agertzen diren puntu batzuk elkarrekin irakurtzera gonbidatzen zaituztegu. Pelikulari dagozkion puntuak laburbilduak aurkituko dituzue hemen. Hauek irakurri ondoren, Asto Errege filmean eskubideak betetzen ala urratzen diren hausnartzera gonbidatzen zaituztegu.

Dokumentua bere osotasunean irakurri nahi baduzu, hemen dago eskuragarri:

KLIK





**PELIKULA
IKUSTERA JOAN
AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

HOLLYWOOD, BOLLYWOOD, LOLLYWOOD

- 3 izendapen hauetatik baten bat ezaguna egiten al zaizu?
- Badakizu nondik datozen Bollywood eta Lollywood izendapenak?

Asto Errege pelikulan Lollywood estilo zinematografikoa aurkituko duzu. Hona hemen horren azalpen laburra:

Lollywood:

Pakistango zinema industria, Lahore hirian sortu izan da eta Lollywood bezela izendatzen da. L hizkia Lahore hiritik datorkio eta 1989an hasi zen erabiltzen izendapen hau. Lollywood pelikulak gehienetan urdu hizkuntzan sortuak dira, Pakistango gehiengoak hitz egiten duen hizkuntzan.

Nahi al duzu ikusi, 2019ko Lollywood abesti, irudi eta koreografia zati labur batzuk?

- Musika ezaguna egiten zaizu?
- Nolakoak dira gizonezko eta emakumezkoen errepresentazioak? Eta beraien arteko harremana?
- Nolakoa da estetika? Arropak, orrazkerak, apaindurak, lekuak eta beraien ezugarriak.
- Zer ezaugarri dituzte dantzek?
- Gustatzen al zaizkizu Lollywood abesti eta dantzak? Zergatik?



Bollywood:

Indiako zinema industriari deritzo. B hizkia Indiako Bonbaitik dator eta Estatu Batuetako Hollywood zinema industriaren izena imitatzen du. Bonbai hindi hizkuntza eta zinema industriaren oinarria da. Bollywood zine industriak urtean 800 pelikula egiten ditu, Hollywood-en bikoitza dena. Bollywood modu ezagunena "masala" da: musika, dantza, maitasun hirukiak eta komedia gaiak dituenak. Gidoiak gehienetan hindi-urdu (hindustani) hizkuntzan egiten dira, Indiako jende gehienak ulertzen duen hizkuntzan.





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



PELIKULA HITZ BATEAN

Borobilean eserita, ikusi duten pelikula **hitz batean** deskribatzeko eskatuko diegu.

- **Zer iruditu zaizue pelikula?**
Zer hitz erabiliko zenuketuen pelikula definitzeko?

Partaide bakoitzak bere hitza arbelean idatzi dezake edota irakasleak idazkari lanak egin. Batzuetan ez dute erraz hitza aurkitzen; zailtasunik badago, beraien iritzia esaldi batean adierazteko eskatuko diegu eta ondoren, esaldi horri dagokion hitza aurkitzen lagundu diezaiokegu partaideari denon artean.

**PELIKULAREN
GAIA**

- Zure ustez zein da pelikularen gai nagusia?

Gai bat baino gehiago aurkitu daitezke baina, pelikula honek, gai nagusi nabarmen bat duela esango zenuke? Indarra leku berezi batean jartzen duela esango zenuke? Zergatik?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**PERTSONAIEN
DESKRIBAPENA**

	<u>Animalia / Gizakia</u>	<u>Nolakoa izaera dauka?</u>	<u>Zein da bere helburua?</u>
MANGU	Astoa <i>Garbitzailea, maila sozial baxukoa</i>		
LEHOI ERREGEA	Lehoia <i>Oihaneke erregea</i>		
ANTHUSTEUS PRINTZEA	Lehoia <i>Lehoi erregearen semea</i>		
MISS FINA	Azeria <i>Lehoi erregearen lehenengo aholkularia</i>		
KROMATIKO	Kamaleoia <i>Lehoi erregearen bigarren aholkularia</i>		
BEGI LUZE	Tximua <i>Tximuberri telebistako jabea</i>		
SAPIENS	Hartza <i>Herritaren iritziaren buruzagia</i>		
MANGUREN AITA	Astoa <i>Hilda dagoenaren agerpena</i>		
IKUSKIZUN MAIXUA	Gizakia, <i>zirkuko domadorea Joker maskara duena</i>		

Fabuletan gehienetan,
azeri arrak, azkarrak
eta adimentsuak
izatearekin lotzen
da eta azeri emeak
gaiztoa izatearekin.
Zegatik?

Pertsonaia
protagonista
hauetatik;
zenbat dira
emakumezkoak?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

ASTO AMESLARIA ETA AMERICAN DREAM

ZEREKIN EGITEN DU AMETS MANGU ASTOAK?

Pelikularen hasieran Mangu amets egiten duen astoa bezala aurkeztua da eta bere kamisetan “*Dream on*” (*jarraitu amets egiten*) jartzen du. Lehenengo eszenan bere ohean lo egiten ari den bitartean duen ametsa aurkezten zaigu eta jarraian, ohetik altxatzerakoan esna egonda ere, amestutakoa:



1. LOTAN:

“*Nork izan nahi du milioidun?*” telebista programan lehiakidea da eta gutxi falta zaio 10 milioi errupia irabazteko. Lucius aurkezleak galdetzen dio, ea nola sentitzen den dirua irabazi baino lehen eta Manguk erantzuten dio:

“*Oso pozik nago. Zoriontsua naiz! Hau zoragarria da, edozein astoaren ametsa medikua edo ingeniaria izatea da..., baina nik txiki-txikitatik oso argi neukan milioiduna izan nahi nuela! Milioiduna!!*”





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

2. ESNA:

Bere osabak esnatu eta ohetik altxatzen du lanera joan dadin, arropa garbitu eta lisatzera. Eta esnatu bezain laster Manguk esaten dio osabari:

“*Osaba...10 segundo gehiago lo egin izan banu, oihan honetako lehen milioiduna izango nintzen! Egundoko dirutza izango nuen! Auto handia eta nire neska kopilotuaren aulkian eserita! Ai...ene bihotza... (esaten duen bitartean, osaba besarkatzen du, imajinatuz bere neskarekin autoan doala, hodeiak zeharkatzen).*”

- Zerekin egiten du amets Manguk, lo eta esna dagoenean? Horren arabera, zeintzuk dira Manguren balioak (zer da berarentzako baliagarriena bizitzan)?
- Zoriontasuna milioidun izatearekin lotzen du Manguk. Baina...
 - Diruak zoriontasuna ematen al digu?
 - Osasunik gabe diruaz gozatu dezakegu?
 - Familia edota lagunik gabe, diruak zoriontasunik ekar dezake?
 - Maitasunik gabe diruaz gozatu dezakegu?
 - Ados al zaude Manguren iritziarekin?
- Zure ustez, zerk ematen digu zoriontasuna edota ongizatea? Zergatik?
- Amets batzuk egia bihurtu ditzakegu eta beste batzuk ez? Ala amesten dugun guztia egia bihurtu daiteke beti?
- Milioidun izan gaitezke ezer berezirik egin gabe?
- Ezberdintasunik al dago desioa eta ametsaren artean? Zergatik?
- Gure ametsak gure baitan sortzen dira ala kanpotik gauza desiragarriak direla esaten digutenean lortu nahi ditugu?




**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**
**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**
“AMERICAN DREAM”

Estatu Batuetako kulturaren ideia nagusietako bat “amets amerikanoa” da, bertan sortu eta ondoren beste herrialdeetako kultura batzuetara zabaltzen joan da. Gaur egun oso zabalduta dagoen ideia honek, balio zehatz batzuk transmititzen ditu.

1931ean James Truslow Adams historialariak “American Epics” liburuan zioen: *“Pertsona guztientzako bizitza hobeagoa eta aberatsagoa izan beharko litzateke, jende guztiak aukera bat izan beharko luke bere gaitasun eta lanaren arabera, bere jatorria zein den edo datorren gizarte maila kontuan hartu gabe.”*

Baina *amets amerikanoa*, XVI. eta XVII. mendeetan sortu zen, ingelesak Ipar Amerikara joaten zirenean hango lurraldeak kolonizatzerako. Hauek ziren garai hartako ideia nagusiak:

1. Estatu Batuak oparotasunaz betetako lurra da.
2. Estatu Batuak aurrera egiteko aukera asko eskaintzen dituen lurra da.
3. Estatu Batuak helmuga lurra da.

Oparotasun eta aberastasun ametsaren atzean, kolonizazio prozesua eta Ipar Amerikako jatorrizko indioen erailketa dago; baita kolonoek beraiei lurra ustiatzea ere. Gaur egun, amets amerikanoa, oparotasun ekonomiko eta materialarekin lotzen da: soldata altuekin, auto polit eta garestiekin, pobrea jaio eta aberatsa bihurtzeko aukerak ematen dituen lurraldea, etab. Kultura honetan, gauza materialak kontsumitzea eta erostea, ongizatearekin eta zoriontasunarekin lotzen da. Baina...



- Gauza materialek benetako zoriontasuna eskaintzeko gaitasuna dute? Zergatik?
- American Dream kontzeptuak, zer balio transmititzen dituela uste duzu?
- Mangu maila sozial baxuko langilea da (garbitzailea); zergatik uste duzu amets mota horiek dituela? Nondik datozkio?
- Gure desioak, kanpotik ala barrutik datozkigu?
- Manguren ametsetako neskak zer ezaugarri ditu? Zer balio transmititzen ditu?
- Pelikulan *amets amerikanoa* agertzen al da? Zergatik?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

MANGUREN AITA

“
Gogotsu amets egiten baduzu,
egun batean egia bihurtuko da
”



- Esaldi hau erreala ala fantastikoa dela esango zenuke?
- Amesten soilik lortuko ditugu gauzak ala amesteaz gain zerbait gehiago behar da?
- Zeintzuk dira ametsak izatearen alde onak gure bizitzarako?
- Ametsak izatearen alde txarrik egon daiteke? Zergatik?

DEMOKRAZIAREN ALDARRIKAPENA

Oihaneko erreinuan, hainbat herritar ez daude konforme erregetzarekin eta pairatzen dituzten bidegabekeriak salatzeko protesta martxa bat antolatzen dute. Beraien eskariak pelikulan hauek dira:

- “Demokrazia garrantzitsua da.”

- “Bozkatu nahi dugu!”

- “Nahikoa, nahikoa! Sakrifiziorik ez!”; Oihaneko festibalaren aurkako martxako leloa da. Errege oturuntzarako 500 antxume errugabe sakrifikatuko dituzte eta ohitura hori onartezina dela salatzen dute.

- Zure ustez demokrazia garrantzitsua da? Zergatik?
- Demokrazia batean zenbaterainoko boterea daukate herritarrek?
- Hautagai bati bozkatzea, boterea ematen al dio herriari? Zergatik?
- Pelikulan, oihaneko sistema politikoa demokrazia batean bihurtuko balitz, eta bertako animalien gehiengoak, 500 antxumeen sakrifizioaren alde bozkatuko balu? Zer gertatuko litzateke galdu duen gutxiengoarekin?
- Gehiengoak beti arrazoia al dauka? Gehiengoak beti bidezkoak legeak bultzatzen ditu?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

ERREGETZAREN OINORDETZA

Lehoi erregeak erretiroa hartzekotan dago eta printzeak, bere semeak, tronua oinordetza hartzea nahi du, baina kezkatua dago herriak ez duelako printzea onartzen; gaizki hezitutako pertsona alferra baita. Lehoi erregeak bere kezka adierazten dio Miss Finari:

“ Benetako erregeak herriak maitatua izan behar du.
Edonork ez du errege izateko balio. ”

- Edozein izan daiteke errege? Zergatik?
- Errege bat onartua izateko, herritarrek onartzea ezinbestekoa dela uste duzu? Zer arrazoi duzu hori pentsatzeko?



- Erresumako animaliei benetako ala itxurazko demokrazia eskainiko diete?
- Helburu bat lortzeko edozein bitartekari eta modu erabiltzea bidezkoa da?
- Zer arrazoiak ditu erregeak, herritarrei demokrazia indarrez ezartzeko?
- Demokrazia indarrez ezarri daiteke? Zergatik?

Lehoi erregeak badaki herriak ez duela gustoko bere semea baina halere, Miss Finari galdetzen dio, zer egin daitekeen printzea bere oinordea izateko. Eta Miss Finak manipulazio politikoa proposatzen dio:

Miss Fina: Agian oihanean demokrazia ezar dezakegu eta herriari aukeratzeko eskubidea eman.

Errege lehoia: Demokrazia? Zer lelokeria da hori?!

Miss Fina: Agintea herriaren eskuetan jartzea demokrazia deitzen da; baina izatez hipokresia izango litzateke. Denek pentsatuko dute eurek aukeratzen dutela erregea baina...errealitatea bestelako izango da.



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

KOMUNIKABIDEAK: gezur eta ikuskizun



Monkey news network erresumako albiste kanalik handiena da eta Begi Luze jabeak, albistegi kanaleko 3 printzipioak aurkezten ditu:

Tximino hauek gure kanaleko 3 printzipio irudikatzen dituzte: gezurrak zabaldu, kuxkuxean aritu eta espiatu. Izan ere, gauza horrexek dauka balioa.

- Albistegi kanalaren balioak bidezkoak eta etikoak direla esango zenuke? Zergatik?
- Nola jakin dezakete herritarrek ematen dituzten albisteak egia ala gezurra diren?
- Ikusle kopurua igotzeko telebistako arduradunek edozer gauza esan eta egin dezakete?
- Komunikabideek informazioa ala ikuskizuna eskaintzen dute?
- Gure komunikabideek beti egia esaten dute?
- Gure komunikabideek errealitatearen itxura eskaintzen digute? Zergatik?
- Erreza ala zaila da guretzako Internet eta komunikabideek ematen duten informazioa egia ala faltsua den jakitea? Adibideren bat jar dezakegu?



ZIRKUA ETA IKUSKIZUNA

Panem et circenses (ogia eta zirkua), Antzinako Erromako esaera ezagun bat da, esan nahi duena: gobernuak herriari kalitate baxuko entretenimendua eta laguntza-elikadura eskaintzen diola, jendea gobernuan sortzen diren konfliktu zein arazoetatik urrun mantentzeko. Entretenimendua eta garia emanez, herritarren arreta desbideratzea lortzen zuten Erromako politikariek. Zirkuan, jendetzari garia eta gladiadore ikuskizunak eskaintzen zizkieten, euren izpiritu kritikoa, haserrea eta protestak baretzeko.



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

Zenbat gertaera eta ekintza bihurtzen dira IKUSKIZUN pelikulan?

Hona hemen zerrenda bat. Zerrendako osagaiek zentzua dutela uste duzu? Aipatutakoez gain, gehiago okurritzen zaizkizue?



- Zirkuan, Manguk zezen handi baten aurka borrokatu behar du; Erromako gladiadoreen antzera. Eta toreaketa ere egiten ditu une batez.
- Zirkuan, lehoi erregeak erregetza utziko duela adierazten du.
- Errege izateko hautagaiak bilatzeko eta aukeratzeko, Royal Idol telebistako ikuskizunaren bidez egiten dute.
- Miss Finak Royal Idol-era aurkeztu diren hautagaiak gustoko ez dituenek, Mangu astoa konbentzitzen du printzearen aurkako hautagaia izateko. Miss Finak propaganda egiteko telebista eta berako albistegiak erabiltzen ditu astoaren aldeko propaganda egiteko. Finak dio astoaren astakeriak, heroia hitzak balira bezela agertuko dituztela.
- Animalien zirkuko domadore gaiztoa "Ikuskizunaren maixua" deitzen da. Eta gizakiek dituzten zirkuko ikuskizunerako erabili nahi dituzte animaliak.


- Zer arrazoi daude hauteskundeak zirkuko batekin konparatzeko?
- Zer esan nahi du zirkuko kontzeptuak? Esanahi batekin baino gehiagorekin definitu dezakegu?
- Zirkuko eta ikuskizun kontzeptuek antzeko esanahia ala desberdina dute?
- Hautagai baten aldekoak lortzeko, zirkuko sortzeak, herritarren iritzia kontrolatzeko lagungarria izan daiteke? Zergatik?
- Erromatarren garaiko "zirkuko"(panem et circenses), gaur egun, hainbat modutara mantentzen dela esango zenuke?
 - Bideo-jolasak zirkuko bat izan daitezke?
 - Telebista programak?
 - Turismoa?
 - Sare sozialak?
 - Futbola?
 - Zirkuko edo ikuskizun bihurtu den zerbait aipa dezakezu?
- Guk geuk geure bizitza zirkuko batean bihurtu genezake nahi izanez gero? Zergatik?

LEHOI ERREGEA:

Fina! Zergatik ateratzen dute Mangu egunkarietan eta telebista guztietan?

MISS FINA:

Maiestatea, hauteskundeak zirkuko bezalakoak dira. Pailazoa ateratzen da jendea pozik edukitzeko. Baina azken ekitaldia lehoiarentzat izaten da beti.





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

USTELKERIA: manipulazioa, mehatxua eta bortizkeria erabiltzea boterea izateko

MEHATXUA

- *Begira lagun; utzi hauteskundeak eta joan etxera! Egin jaramon...*
- *Eta nahi ez badut?*
- *Ez? Kar, kar, kar,... Ahaztu zaizu jada printzeak nolako oturuntzak egiten dituen? Gaur antxume asko haragi bola egingo dituzte berriro! Kar, kar, kar,...*
- *Alde hemendik!*
- *Egin jaramon hartza, joan etxera. Inork ez du botorik emango. Zoazte atseden hartzera. Neuk emango ditut zuen botoak. Alde hemendik!! Ospa!!! (bortizkeriaren bidez uxatzen dituzte beraien bozka ematera joan diren herritarrak).*

- Zein da zuen iritzia eszena honi buruz?
- Saihestu al daitezke horrelako egoerak?
- Bozka ezarrita dagoen herrialdeetan horrelakorik gertatzen dela uste duzu?

GEZURRA ETA MANIPULAZIOA:

Gauza bat esan eta beste bat egitea. Eta jendearen iritzia azpijokoen bidez kontrolatzea.

Promesak globoak bezalakoak dira, hauteskundeen ondoren haizeak eramango ditu. (Miss Fina)

- Hautagai batek irabazten duenean, gero betetzen al ditu esandakoak?
- Hitzak haizeak eramaten al ditu politikan? Nola dakizu?

**GIZA ESKUBIDE BATZUK
OROITARAZTEN...**

- 3. Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.
- 5. Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratatu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.
- 9. Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

- Zein da Miss Finaren helburua bahiketa eta desagerpenekin?
- Helburu politiko bat lortzeko edozein bitartekari erabili daiteke?
- Nazioarteko herrialde ezberdinek, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala errespetatzeko eta aplikatzeko borondatea dutela uste duzu? Zergatik?
- Pelikulan Giza Eskubideak bermatzen dira? Zergatik?
- Pelikulak planteatzen duen egoera hau oinarri erreala ala fikzioa duela esango zenuke? Zergatik?
- Pelikulako poliziak desagertu diren herritarren inguruan ikertzeko borondatea dauka? Giza eskubideen alde al dago?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



ERREALITATEA ETA ITXURA

ITXURA, ERREALITATEA BALITZ BEZALA HARTZEN DENEAN:

Mangu: Aita, aita! Gezurra zen dena. Finaren plana zen guztia nitaz aprobetxatzeko. Aita barkatu, barkatu! Erregea naizela sinistarazi didate.

Aita: Ez eskatu niri barkatzeko, bozkatu zintuztenei baizik.

Mangu: Aita itxaron unetxo batean, bideoa Facebookera igo behar dut. -Miss Fina eta Ikuskizun maixuak animaliak bahitzen dituen bideoa-.

Aita: Ai Mangu, mesedez! Egin aurre zure arazoei eta utzi Facebooka alde batera!

Mangu: Aita, etorri nirekin.

Aita: Ez, ezinezkoa da. Norbaiten atzean ezkututzen zara beti. Finaren atzean ezkutatu zinen errege egiteko eta orain nik zurekin joatea nahi duzu. Joan eta erakutsi herriari agindu zenien erregea zarela eta asto izan arren oso buru argia dudala. Tira, joan, aurrera seme!

...Mangu herritarrekin joaten da, abixua ematera eta laguntza eske...

ELKARRIZKETARAKO PROPOSAMENAK

ERREALITATEA, ITXURATZAT HARTZEN DENEAN:

Mangu: Lagunok, barka iezadazue, mesedez. Barkatzeko eskatu behar dizuet bihotz-bihotzez.

Sapiens: Mangu, zer gertatzen zaizu?

Mangu: Sapiens, begira, ez dakizu zer gauza izugarria egin dudan oharkabea. Finak Oihana hondatzeko asmoa dauka eta ni txotxongilo bezala erabili nau. Zuen senideak bahituak daude. Desagertutako animalia guztiak Finak ditu bahituta eta Ikuskizun maixuaren zirkura eraman nahi ditu.

Zezena: Ze lelokeria esaten ari zara?

Mangu: Ez dira lelokeriak Errege ohia eta printzea ere hantxe dauzkate.

Antxumea: A ze irudimena! Fantasia nobelak idazten hasi beharko zenuke.

Mangu: Egia da, egia da! Sinetsi mesedez!

Antxumea: Zergatik? Nola jakin ez dituzula zuk bahitu!

Itxurak, erreala dirudi:

Ikuskizunaren bidezko tresnak erabiliz, errealitate faltsua sortzea lortzen dute; Begi Luze, Kromatiko, Miss Fina eta Ikuskizunaren maixuak. Erreala ez dena, erreala balitz moduan aurkezten da. Erregea ere engainatzea lortzen dute.

Errealitateak, itxura

dirudi: Mangu errealitatea deskubritzen duenean, erabilia izan dela konturatzen da. Herritarrei gertatu dena kontatzen die baina haiek, itxura errealitatea dela sinisten jarraitzen dute.

- Zergatik herritarrek ez zuten Manguk esandakoa sinetsi? Arrazoi ezberdin bat baina gehiago ematen saiatu.
- Zergatik sinetsi zuten herritar guztiak hauteskundeetan komunikabideek esandakoa?
- Zergatik nahi zuen Manguk, herritarrekin joan baino lehen Facebooken bidez bideoa bidali? Eta aitzak zergatik esan zion Facebooka alde batera uzteko?
- Gaur egun, nola bereiztu dezakegu; zer den errealitatea eta zer itxura?
- Zein izan daitezke Fake-News edo “berri faltsuen” helburua?
- Manguk Facebookeko hormara igo zuenean bideoa, zer arrazoi zituzten esandakoa sinesteko?
- Bideo bat manipulatu egon daiteke?
- Irudiek hitzak baino errealitatea handiagoa daukate, ala alderantziz?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**ELKARRIZKETARAKO
PROPOSAMENAK**

BUKAERAREN SINESGARRITASUNAZ PENTSATZEN

Mangu: Maiestatea, tronua eta koroa zuretzako, asto jaio nintzen eta astoa izango naiz.

Lehoi erregea: Mangu, herriak aukeratu zaitu errege hauteskunde bidez eta inork ez du eskubiderik erabaki hori atzera botatzeko. Nik neuk ere ez.

Mangu: Sapiens, azaldu iezaiozu zeuk mesedez.

Sapiens: Baina arrazoi du Mangu, herriak zeu aukeratu zaitu. Zeu zara legezko erregea.

Mangu: Baina nola gobernatu oihan osoa neuk bakarrik?

Pelikularen bukaera
sinesgarria egiten zaizu?
Zergatik?

Demokraziak irabazi al du?


Demokraziaren gainetik
erregea dago?

- Mangu ez zen hautagai izatera aurkeztu, ez zuelako nahi hautagaia izan. Nola iritsi zen orduan hautagai izatera?
- Prozesu demokratiko bat egon al da (askea eta bidezkoa) Mangu errege bihurtzeko ala prozesu bat non herritarren iritzia manipulatu izan den?
- Gezurretako hautagaitza eta erregetzaren bidez, bihurtu al daiteke Mangu legezko errege?
- Gezurrak, iruzurrak eta azpijokoek, demokraziara eramaten dutela ondoriozta daiteke?
- Pelikularen bukaeran, demokraziak irabazi duela esango zenuke, pelikulak aipatzen duen bezala? Edota pelikularen bukaera hori beste azpijoko batean bihurtu ote da?
- Gure gizartean, komunikabideek, gure iritzian eraginik al dute? Zergatik?

ARIKETA: Komikiak

Honako irudiak, talde txikietan edo denok elkarrekin ikus ditzakegu.

- Zer adierazten du irudiak?
- Zer gertatzen zaie pertsonaiei?
- Asto *Erregea* pelikularekin loturarik dauka ala ez?
- Zer izenburu jarriko zenioke?



Pelikulak zugarik utzi duen gogoeta eta irudi hauetan inspiratuz, gai honen inguruan; zure komiki bineta sortzera animatzen zaitugu! Gero gelako horman komiki erakusketa bat sortu dezakezue.

